

... seme-alabei buruz

¿Ez al da politika kutun hori batak besteari esateko ordua? ¿Gorputzaren gorabehera guzti horiek esateko ordua?

Ez da aurrentipen bat, sentipen sakon bat baizik.

Negar ixil batek zeharkatzen dizkit nire barneak. Ez dut ez tristuraz eta ez penaz negar egiten, maitasunez egiten dut negar. Negar on bat da.

... haragiaren min hori.

Semeak kontatu dit libretatik 15 euro kendu dizkiotela bankukoek, ez dakiela zergatik.

Interneten begiratu du, banku berebetean bait dugu kontu korrantea. Amari eta niri ez digute dirurik kendu. Galdezka deitu dut bankura, zergatik ez diguzue guri kendu dirurik? Nomina edo pentsio kobratzen duzutelako. Baina zergatik berari bai orduan? Behartsu izateak penalizazio bat omen dakar, bankuari garesti ateratzen zaio eta. Eskobatu ditzagun jendailak.

Hori da, gutxienez, nik aditzen dudana.

Enpresa politikagatik egin dutela erantzun didate. Putakumeak, pentsatu dut telefona eskegiaz.

... haragiaren maitasun hori.

Andaluziarra naiz. Ez dauka ezer berezirik, han jaio nintzen soilik.

Nire gurasoek lau aulki eta hiru hume koxkorrekin emigratu zuten Bartzelonara, bizitza hobe baten bila.

Nire semea katalana, alai eta ona da, eta... zer kontakoz ditzuet nik! Bere bizimodua ateratzen saiatzen ari da, beste hainbatek bezela. Udazken hontan hain andaluziarra den Roussillon aldera joan zen, mahats bilketan lan egitera. Bisitan etorri zitzaigun egun batzuk lehenago, eta frantziako mahats bilketari buruz abesti bat ez al nuen galdetu zidan. Carlos Canoren *Viva la Grasia* jarri nion. Diskoa entzun eta irripar bat marrazten zaio aurpegian, niri ordea... sentimendu nahaste batek erraiak zeharkatzen dizkit. Zirkulua osatuz doa...

... haragiaren alaitasun hori.

Nire semeari txistuka aritzea gustatzen zaio. Ataritik entzuten da bere txistua bisitan

datorrenean, eta esan diezazuket gorputza alaitasun deskribaezin batek betetzen didala. Gauza txikiak dira, badakit, baina ez al zaizkizue antzeko gauzak gertatzen? Etxean jada, hitz eta barre egiten dugu eta gorputza eta burua prestatu behar ditugula aipatzen dugu, geure burua indartu, alaitasuna bilatu hainbeste pobretasun artean, goiari eutsi, ez amore eman. Beraiek, guztiak, armaturik daude eta gure aurka datozen, gu guztien aurka. Bere aurpegi eta begiak kaleidoskopio amaigabe batean galtzen dira, baina oinak kristalezkoak dituzte, aurkitzen badakizkigu.

Bizitzea, horrek izan behar du geure mendekua. Errefluxu koipetsu eta garratz batek eztarria trabatzen dit. Nik ere nahi dut, Papasseitek bezela, nire semearen, gure semeen txistu alai itzali nahi duten «ergelen buru biluzietan txistu egin».

Nik bezela, transizioari amaiera emanik, harri kartoi, itsas turkesa eta hondar txurizko hondartzez eginiko dekoratu hartan, seme alabak izan zituzten guztiei eskeinia doa hau. Hotzgailua beterik eta hizozki garestiena eroatera korrika gindoazela, historiaren amailera esplikatu genienei. Orain, historia bukatu ez dela dakigula, hondartza hondar mugikorrezko desertu bilakatu delarik, mundu bat hondoratzen dela eta hobeagoa (edo okerragoa?) den zerbait eraikitzeke aukera agertzen zaigula ikusten dugularik, zein aldetan kokatuko garen erabakitzeke ordua datorkigu, akaso.